Araugintza
I. ikastaroa



3. saioa
Izen Sintagma

Erantzun orriak

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092

Aurkibidea

Izen sintagma. Ariketa orokorra..... 3
ARAUAK 5
"Hiru" eta "lau" zenbatzaileen deklinabidea 5
Partitiboa 6
"Bat" eta "batzuk", besteak beste..... 8
OHIKO AKATSAK..... 9
Asko /handi..... 9
-a bat / -ak batzuk..... 9
Alfer bat / alfer huts..... 9
Beste ...-a / beste ... bat; beste ... -ak / beste ... batzuk 10
Artikulu zehaztua maileguetan 10

Izen sintagma. Ariketa orokorra

1. *Zein da Euskaltzaindiak hobesten duen forma?*
   x. Taberna hauetan guztietan ematen dute jaten.
   b. Taberna guzti hauetan ematen dute jaten.
   c. Taberna hauek guztietan ematen dute jaten.

2.

2.1. Zein da zuzena?

   x) Atzoko hirurak etorri dira gaur ere, baina beste hamahiruak etxean gelditu dira.
   b) Atzoko hiruak etorri dira gaur ere, baina beste hamahiruak etxean gelditu dira.
   c) Atzoko hirurak etorri dira gaur ere, baina beste hamahirurak etxean gelditu dira.
   d) Atzoko hiruak etorri dira gaur ere, baina beste hamahirurak etxean gelditu dira.

2.2. Zein da zuzena?

   x) Zazpi zeuden arren, lauri bakarrik eman dizkiet gozokiak, besteak ez baitira batere gozozaleak.
   b) Zazpi zeuden arren, laurei bakarrik eman dizkiet gozokiak, besteak ez baitira batere gozozaleak.

3. Zein da zuzena?

   a) Nortzuek etortzen ahal dira zazpietarako?
   b) Nortzu etortzen ahal dira zazpietarako?
   x) Nortzuek bukatzen ahal dute txostena biharko?
   d) Nortzuk bukatzen ahal dute txostena biharko?

4.

4.1. Zein da zuzena?

a) Eskolako liburu batetatik atera dut esamolde hori.

x) Eskolako liburu batetik atera dut esamolde hori.

4.2. Zein da zuzena?

a) Lagun batzu ez omen dira garaiz etorriko.

b) Lagun batzuek ez omen dira garaiz etorriko.

x) Lagun batzuk ez omen dira garaiz etorriko.

5. Zein da zuzena?

a) Lanarik gabe gelditu gara.

x) Lanik gabe gelditu gara.

c) Azken bolada honetan ez dut bertze liburuarik irakurri.

d) Azken bolada honetan ez dut bertze liburuik irakurri.

e) Azken bolada honetan ez ditut libururik irakurri.

6. Zein da zuzena?

a) Tamalez, oso gutxi izaten dira benetazko lagunak.

x) Tamalez, oso gutxi izaten dira benetako lagunak.

c) Tamalez, oso gutxi izaten dira bene-benetazko lagunak.

7. Zein da zuzena?

a) Hemen ez da inor betirako sortu denik.

b) Hemen ez da inor betiako sortu denik.

c) Hemen ez da inor betiko sortu denik.

ARAUAK

“Hiru” eta “lau” zenbatzaileen deklinabidea

1. Me ha venido el tres / Me han venido tres / Me han venido los tres.
   Hirua etorri zait / Hiru etorri zaizkit/ Hirurak etorri zaizkit
2. Lau kontsulta-liburu genituen esku artean eta **la información la hemos extraído de tres**:
   Hirutatik atera dugu informazioa
3. Sólo lo han solicitado tres / Lo han solicitado los tres / Lo ha solicitado el tres.
   Hiruk bakarrik eskatu dute / Hirurek eskatu dute / Hiruak eskatu du
4. Soy amiga de los tres / Soy amiga de tres.
   Hiruren laguna naiz / Hiruren laguna naiz
5. Se lo di a tres (a trece) / Se lo di a los tres (a los trece) / Se lo di al tres (al trece).
   Hiruri eman nien (hamahiruri) / Hirurei eman nien (hamahiruei) / hiruari eman nion (hamahiruari)
6. Las cuatro veces que he ido a tu casa me has contado lo mismo.
   Zure etxera joan naizen lauretan gauza bera kontatu didazu.
7. Nos hemos acercado a cuatro (veinticuatro) / Nos hemos acercado a los cuatro.
   Laurengana hurbildu gara, lauri hurbildu gatzaizkie (hogeita laurengana, hogeita lauri) / Laurengana hurbildu gara, laurei hurbildu gatzaizkie.
8. De los cuatro (catorce) que me han enseñado sólo me llevaré tres (trece).
   Erakutsi dizkidaten lauretatik (hamalauetatik) hiru (hamahiru) baino ez ditut eramanen.
9. Se lo diremos a cuatro (a catorce) / Se lo diremos a los cuatro (a los catorce) / Se lo diremos al cuatro (al catorce).
   Lauri esango diegu (hamalauri) / Laurei esango diegu (hamalauei) / Lauari esango diogu (hamalauari)
10. De los cuatro (de los catorce) he podido aprender algo / De cuatro (de catorce) he podido aprender algo / Del cuatro (del catorce) he podido aprender algo.
    Laurengandik (hamalauengandik) zer edo zer ikasteko aukera izan dut / Laurengandik (hamalaurengandik) zer edo zer ikasteko aukera izan dut / Lauarengandik zer edo zer ikasteko aukera izan dut (hamalauarengandik)

Partitiboa

A.

1. Nabari da Edurnek ez duela hiztegirik erabili, bestela ez zukeen hainbeste ortografia akats izango (HIZTEGI).
2. Atzo erositako hiztegia da onena, nire iritziz (HIZTEGI).
3. Ez omen zuen betarik izan (BETA).
4. Maparik ez genuenez, galdu egin ginen (MAPA).
5. Erlojurik ere ez genuen eta berandu iritsi ginen autobus geltokira (ERLOJU).
6. Ba al duzu surik? (SU)
7. Garagardorik erosi behar al dugu? (GARAGARDO).
8. Marka horretako garagardorik/garagardoa erosi behar al dugu? Nik nahiago dut beste hau (GARAGARDO).
9. Ikastetxe honetan ordenagailu-gelarik ba ote den galdetzen diot neure buruari (ORDENAGAILU-GELA).
10. Ikastetxe honetako ordenagailu-gela nork erabiltzen ote duen galdetzen diot neure buruari (ORDENAGAILU-GELA).
11. Laguntza(rik) behar izanez gero, nik neuk emango dizut (LAGUNTZA).
12. Bidaiatzeko lagunik/laguna banu, bihar bertan joango nintzateke Atlas aldera (LAGUN).
13. Beti nirekin joan izan den laguna orain ere prest balego, bihar bertan joango nintzateke Atlas aldera (LAGUN).
14. Manifestazio hartan bazen jenderik (JENDE).
15. Gure artean bada hori dakienik (DAKIENA).
16. Aintzane da izen(ik) ederrena (IZEN).
17. Everest da mendi(rik) garaiena (MENDI).
18. Idoia dut lagun(ik) minena (LAGUN).
19. Diru(rik) gabe ezer gutxi egin daiteke (DIRU).
20. Ogirik gabe bazkaltzen dugu (OGI).

B.

1. Ez daukat hau egiteko _____
   a) presik
   x) presarik
2. Etxean ez dago inon _____, ez hozkailuan ez kanpoan.
   x) sagarrik
   b) sagarrarik
3. Ez daukazu 50 zentimoko _____ poltsikoan?
   a) txanponarik
   x) txanponik
4. Badaukazue zinemara joateko _____?
   a) asmoik
   x) asmorik
5. Nik ez dut hartu _____, eta zuk?
   x) giltzarik
   b) giltzik
6. Badaukazu _____?
   a) arkatzarik
   x) arkatzik

C.

1. Ez _____ hau egiteko _____
   a) dauzkat / gogoak
   x) daukat / gogorik
   c) dauzkat gogorik
2. Etxean ez _____ sagar _____, ez hozkailuan ez kanpoan.
   x) dago / gorririk
   b) daude / gorririk
   x) daude / gorriak
3. Ez _____ 50 zentimoko _____ poltsikoan?
   x) dauzkazu / txanponak
   b) dauzkazu / txanponik
   x) daukazu / txanponik
4. _____ zinemara joateko _____?
   a) Badauzkazue / asmoak
   b) Badauzkazue / asmorik
   x) Badaukazue / asmorik
5. Nik ez _____ hartu _____, eta zuk?
   x) ditut / giltzak
   b) ditut / giltzarik
   x) dut / giltzarik

OHARRA: Bi erantzun markatu ditugun galderetan,
kontuan izan biak izan daitezkeela zuzenak baina esanahia ezberdina dela.

“Bat” eta “batzuk”, besteak beste

Zuzendu itzazu akatsak.

1. ~~Ipui batetan~~ irakurri nuen esaldi polit hori.
   Ipuin, batean
2. ~~Nafarroko~~ lagun ~~batzurekin~~ afaltzera joanen naiz eta ~~ordu batetan~~-edo itzuliko gara.
   Nafarroako, batzuekin, ordu batean-edo
3. Garai ~~batetako~~ kontuak sinestezinak dira gazte batzuentzat.
   Bateko
4. Irakasle ~~batzuk~~ ez dakite zer egin ikasleek gehiago ikas dezaten.
   Batzuek
5. Guraso batzuk haserre daude ~~seme alabekin~~.
   Seme-alabekin
6. Bi baino ez dira etorri: ~~batek~~ oso lan gutxi egin du, eta besteak ez du deus egin.
   Batak
7. ~~Batzutan~~ hobe izaten da etxetik ez irtetea.
   Batzuetan
8. Egunen ~~batetan~~ aitortuko dizut egia.
   Batean
9. Une ~~batzu~~ besteak baino egokiagoak izaten dira egia gordinak aitortzeko.
   batzuk
10. A zer parea, karakola eta barea! ~~Baten eritziz~~, gureak egin du. Bestearen ustez, berriz, estu eta larri ibiliko gara eta ez du merezi izango.
    Bataren, iritziz
11. ~~Guzti hauei~~ nik neuk esango diet, baina gainerakoei zeuk esan.
    Hauei guztiei
12. ~~Nortzuk~~ apurtu dituzte kristal ~~guzti hauek~~?
    Nortzuek, hauek guztiak
13. ~~Etzirako~~ konponduta izanen direla esan dute zurginek.
    Etziko
14. Zuetako ~~batzurekin~~ ez naiz inoiz haserretuko, seguru nago.
    Batzuekin

OHIKO AKATSAK

Asko /handi

Hace mucho calor	Bero handia egiten du (dago)	Hace mucho frío	Hotz handia egiten du (dago)
Hace mucho viento	Haize zakarra dabil	Tengo mucha hambre	Oso gose naiz; Goseak amorratzen nago
¿Falta mucho camino?	Bide luzea falta da?	Eso es mucho tiempo	Denbora luzea da hori
Eso es demasiado poco tiempo.	Denbora laburregia, gutxiegi da.		

-a bat / -ak batzuk

¿Qué es esto? Eso es una mesa	Zer da hau? Hori mahaia da	Eneko es un chico majo	Eneko mutil jatorra da
¿Qué es, un chico o una chica?	Zer da, neska ala mutila?	Mikel es un buen profesor	Mikel irakasle ona da
Explicado de una manera fácil...	Modu errazean azalduta...	Yo quiero un café con leche	Nik kafesnea nahi dut
¿Qué es eso, un pájaro o un ratón?	Zer da, txoria ala sagua?		

Alfer bat / alfer huts

Ése es un vago	Hori alfer hutsa da / Alfer galanta da hori	Ese chico es un mentiroso	Mutil hori gezurti hutsa da
Esos son unos ladrones	Horiek lapur hutsak dira	Sois unos cobardes	Kakati hutsak zarete.

Beste …-a / beste … bat; beste … -ak / beste … batzuk

Vamos a otro sitio	Goazen beste leku batera	Eso es otra cosa	Hori beste gauza bat da
Hay otros problemas.	Beste arazo batzuk daude.		

Han logrado una nueva victoria	Beste garaipen bat lortu dute	Han metido un nuevo gol	Beste gol bat sartu dute
Tendremos que sufrir un nuevo ataque.	Beste eraso bat jasan beharko dugu.		

El otro día no viniste	Lehengo egunean ez zinen etorri	Le vi el otro día	Joan den egunean ikusi nuen
Estuvo el otro día /	Aurreko egunean izan zen	¿Has hecho lo del otro día?	Aurreko egunekoa egin duzu?

Artikulu zehaztua maileguetan

Yo quiero café	Nik kafea nahi dut	¿Tú qué vas a tomar? ¿Zurito?	Zuk zer hartuko duzu? Zuritoa?
¿Quiéres chicle?	Txiklea (txiklerik) nahi al duzu?	¡Qué susto!	A zer-nolako sustoa!